


# Ikasleen Txokoa

# Hernani Institutua



Hernaniko gazteak

irriak eraikitzen / II



**THAMER BIRAWI**

*GIPUZKOAN BIZI DEN PALESTINARRA:*

«Palestinar gatazka ez da bihar bertan konponduko den zerbait, urteak beharko dira» / III

IV / Le Corbusier Lucien Herué eraikuntza konposaketa

IRITZIA:

IV / Minbizia eta metastasia

Egileen argazkia / IV





Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

## HERNANI INSTITUTUA

# Hernaniko gazteak 'irriak eraikitzen'

'Irriak eraikitzen'

11 eta 16 urte bitarteko 33 neska-mutil gaztek osatzen duten elkarte dugu eta kurtso hasieratik dabilta lanean, *lehen* eta *hirugarren* munduaren artean ezaguera, gazteen arteko kooperazioa eta elkar eragina sustatzeko asmoz.

GAZTEENGANDIK datorren inizatiba hau, Hernaniko Gazte Txokoan sortu zen, bertako hezitzaile batek, Wukrotik etorri berritan, gazteei hango egoeraz hitz egin zienean. Honen aurrean, gazteak zerbait egitera animatu ziren eta berehala jarri ziren martxan. Haien lehenengo ekintza Santo Tomas egunean izan zen; Wukrorako dirua biltzeko asmoz, *Irriak eraikitzen*-en txapak eta txistorra pintxo solidarioak saltzeko postu bat jarri zutenean.

**Helburua ez da diru bilketa bakarrik**

Baina gazteak ez dira diru bilketa bakarrik mugatzen, haien helburu nagusia beste bat baita; Munduko haur eta gazteen egoerari buruz informazioa hedatzea eta proiektu kultural, sozial eta hezitzaileak diseinatu eta egitea baitituzte lehentasunak. Horrela,



Gazteengandik datorren inizatiba Gazte Txokoan sortu zen.

ikastoletan hitzaldiak ematen hasiak dira eta honetan jarraitzeko asmoz daude, kultura ezberdinetako haur eta gazteen artean elkar ulermena sustatzeko.

Otsailean eman dute azken aurrerapausua elkarte sortzen, helburuak, metodoak eta ekintza ezberdinak zehaztuz. Beraien proiektuen artean dira, Wukroko misioentzako diru bilketa egitea, festetan salmenta postuak jartzea eta saltzeko materiala egitea. Bestalde, kontzientziazio proiektuak aurrera eramaten dituzte, hitzaldien

bidez eta sentsibilizazio ikuskitzuzen bidez.

Oraingoan, eta hezitzaileetako bat Wukroa doanez, grabazioen bidez hango gazte eta haurrekin elkartrukea egingo dute. Honela, gazteek hemengo bizitza erakusteko asmoz, grabazioa prestatzen ari dira, ondoren, hangoek, ikus dezaten. Jarduera honen helburua, elkarrekin bizitzaren berri izan eta elkartruke kulturala egitea da.

**Erantzun baikorra**

Taldeak esker ona adierazi du

herrian izan duten erantzunarengatik; Bai Santo Tomas egunean, eta baita antolatutako beste ekintzetan, ekintzak aurrera eramateko gazte gehiagoren laguntza jasotzeaz gain, jendearen kolaborazioa ezinbestekoa dela azpimarratzen baitute. Era berean, Gazte Txokoko hezitzaileak pozik ageri dira, gazteek izan duten jarrerarekin, horrelako ekimenak gutxitan ikusteko aukera izaten baita.

Informazio gehiago elkartearen web orrian: <http://irriake-raikitzen.hautetfort.com>. ■





THAMER BIRAWI - Gipuzkoan bizi den palestinarra.

# «Palestinar gatazka ez da bihar bertan konponduko den zerbait, urteak beharko dira»

THAMER Birawi Gipuzkoan bizi den palestinarra da. Azkenaldian Palestinaren kontrako erasoak gogortu egin dira eta Hernanin bertan izan dira mobilizazioak hori salatzen. Berarengana jo dugu gatazkaren berri izateko.

## Zer esango zeniguke palestinar gatazkaren inguruan?


Nire ustetan, Palestinar gatazka ez da bihar bertan konponduko den zerbait, urteak ala hamarkadak ere beharko ditu. Arazoaren arrazoia, garbiketa etniko bat egon zela da, hau nik diot, gatazkaren historia ezagutzen baitut; 40. hamarkada aldera gertatu zen, baina mundu osoak 80. hamarkadara arte itxaron behar izan zuen honen ezagutza izateko, historialari israeldar batzuk honi buruz hitz egiten hasi zirenean. 800.000 palestinar inguru euren lurak uztera eta inguruko lurraldeetara joatera behartuak izan ziren. Urte hauetan ia palestinar herri osoaren erdia erbesteratua izan zen eta bostehun hiri eta herri palestinarretik gora suntsitu zituzten. Hau, israeldar estatua sortzearen ideiaz baliatuz egin zuten, hau da, "judutarrentzat estatu bat sortzea okupaturik dagoen herri batean", hori zen ideia eta hortxe dago arazoa. 1917tik 1947 arte okupazio ingelespean jarria izan da Palestina; 30 urte hauetan, ingelesak bertan sartu ziren, aurretik europar organizazio sionistekin hitzartutako paktu baten ondoren.

## Zer da Sionismoa?

Judutarren historia eta sufrimendua helburu kolonialak lortzeko erabiltzen dituen ideologia da; Kapital sionista inbertitzeko leku baten bila zebilen, euren modura eta legerik gabe aritzeko leku bilatzen. Nahiz eta egun Europa ez judutarra izan, pro-sionista da, hau da, euren proiektua defendatzen du, hau ziurrenik Palestina leku estrategiko batean dagoelako da, hau da, inguruan petroleoa dago, Afrika-Asia muga da... estatu israeldarra sionista da, eskusionistak dira.

## Zein argudio dute sionistek Palestina okupatzeko?

Jendeari saltzen zaion gezurra da, Palestina egitan judutarrena dela, honek ez du historiarekin zer ikusirik, hori bai, ez badugu hasieratzat eta benetako historiatzat Biblia hartzen noski. Palestinaren historia Bibliarekin hasiko balitz bezala... eta



Thamer Birawi, artxiboko argazkian.

**Arazoaren arrazoia, garbiketa etnikoa bat egon zela da, hau nik diot, gatazkaren historia ezagutzen baitut, 40. hamarkada aldera gertatu zen**

hau ez dute zalantzan jartzen, Biblia liburu santua da eta honek hala badio, hala da, eta kito.

## Palestina bertan ere kultura, erlijio ezberdinak badira.

Bai, asko entzuten da arabiar eta judutarren arteko gatazkaren berri, baina hau ez da zuzena inondik ere, arabiarra, arabea hitz egiten duena da, munduan 300.000.000 inguru daude, honekin esan nahi dudana da, arabiar hitzak ez duela inongo indikazio erlijiosorik, izan ere, ni arabiar-musulmana naiz, baina nire bizilaguna arabiar-kristaua da eta bestea arabiar-judutarra, hau da, hizkuntzaren kontzeptua edo etnikoa, eta kontzeptu erlijiosoa ezberdinak dira. Baina nola ahaztu ere Kristo eta kristautasunak jatorria Belenen, Palestinan duela, hau da, milioika arabiarren artean milioika kristau daude.

## Orduan gatazka ez datza ezberdintasun erlijiosoan?

Hori da, Palestinan eta orokorrean mundu arabiarrean gatazka ez da erlijiosoa, Palestinan gauzatzen saiatzen diren garbiketa etnikoa Europatik dator. Guri extremistak deitzen gaituzte, baina penintsulan, Errege Katolikoek penintsula errekonkistatu zutenean, musulmana izateagatik kanporatzen zuten jendea, hori egin zen "garbiketa" bat, eta ekialdera joaten bazara, esaterako nire herritik gertu, samariarrak daude, Israeldar estatua baina zaharragoak, Biblia onartzen, hau da Palestinan bertan pentsaera ezberdin ugari dago.

## Nola izan zen okupazioa?

Behin ingelesak laguntzaz palestinar lurak ongi prestatu zituztela, lege eta politika berriak jartzeko proiektua hasi zen. Helburua bertako herritarrek kaltetzea eta etorkin berriei laguntzea zen. Ingelesak Palestinan kokatzen ziren, eurek ez zuten bertan egoteko eskubiderik baina bertan sartu ziren, gobernadore orokor moduan sionista bat jarri zuten, noski honek dio judutarren beharra Palestinan ezartzea eta bertan *errefujio* estatu bat sortzea dela; hark zioen, bertako palestinarrentzat

**Hernanin jende asko Palestinar herri borrokaren alde dagoela badakit.**

**Hernani herri borrokalaria eta progresista da eta eskerrak eman nahi dizkiet nire herriaren izenean Palestinaren aldeko ekintzetan parte hartzeagatik**

arabiar lur asko daudela, hori dugula desertua... libre, "joan daitezela hara eta instalatu daitezela bertan" diote. Hor dago arazoa, guk noski ez dugu onartuko gure lurretatik botatzea. Orduan Palestinaren negazioa egongo da, baina Israelek ez gaitu ikusten! Ez gaitu pertsonatzat hartzen! horrenbesteraingo deshuminizatu gaituzte, edozein zigor ezartzen digutela, sozietate israeldarrak egokitzen hartzen duela.

## Aukeratu berri den Estatu Batuar presidentearekin, Obamarekin, Palestinaren inguruan aldatetaren bat espero duzu?

Ez, estatu baten kanpo politika ez datza pertsona bakar batean, beti daude aldaezinak diren aspektu batzuk, gehiago Estatu Batuetan, judutarrek bertan duten botereagatik. Gai honen inguruan, ezaguna den John Petras analista politiko eta intelektuala artikulu bat idatzi du, bertan aipatzen du Obama gaztea zenean, bere bi irakasle nagusiak judutarrek eta sionistak zirela eta ikasketak bukatzean eurekin lanean hasi zela.

## Gatazkari soluzio bat bilatzen ari direla uste duzu?

Ez, Israel bakearen guztiz aurkakoa da, alde batetik bere dogma historiko eta erlijiosoa daude, berea Jainkoak aukeratutako herri sakratua dela... logika gabekoak. Eta bestetik, argi dago munduko potentzia militar handienetakoa dela, beraiek diote armada garaitezina dutela; historiak argi utzi digu ez dagoela armada garaitezinik, are gehiago eskubide logikoen aurka borrokatzen dutenean. Garrantzitsuenak da gure borroka bertan behera ez uztea, denborarekin.

## Azkenaldian mobilizazio ugari egon dira hemen.

Bai, badakit Hernaniko jende asko Palestinar herri borrokaren alde dagoela. Badakit Hernani herri borrokalaria eta progresista dela eta eskerrak eman nahi dizkiet nire herriaren izenean Palestinaren aldeko ekintzetan parte hartu dutenei. Jendea adi egon dadila egongo diren ekintzei. ■



# Le Corbusier Lucien Hervé eraikuntza konposaketa

MUSEUM Cemento Rezolak erakusketa antolatu du, Pariseko Le Corbusier Fundazioarekin elkarlanean, Hervé argazkilariak Le Corbusierren obrari buruz egindako lanari omenaldia egiteko, eta bere lan arkitektonikoaren lehen esku-dokumentazioa osatzen duten argazki originalen serie bat aurkezteko.

**Bizitza ulertzeko modu berria** XX. mendearen lehen erdialdean eman ziren krisi ekonomikoak, mugimendu iraultzaileak eta mundu gerrak, tentsio sozial anitz sortu zituzten. Horregatik, artistek, munduaren gogorkeri hura salatu nahi izan zuten. Hauek lengoia eta forma tradizioetatik urrundu



Villa Saboye eraikina.

egin ziren eta hausturak sortu zituzten, hau da, abangoardiak. Ondorioz, artea adierazpen pertsonalaren adibide bihurtu zen gizartean.

Orduan sortuko da arrazionalismoa, hau da, forma soilak, oinarritzko bolumenetara itzultzea eta eraikuntzaren logikaren aldarrikapena balio dekoratiboguztien aurretik egongo da.

Arrazionalismoak gizarte industrialen arrazionalismoa defendatzen zuen, non dena funtzioari eragokitu behar zitzaion.

**Le Corbusier, arkitekto arrazionalista**

Charles Edouard Jenneneret Suitzan jaio zen eta bere aita erlojugilea zen, harengatik jaso zuen prezisioa eta matematika-

rako gustua. Bere kezkarik nagusienetako bat, gizakia kolektibitate modura hartzea izan zen. Mundu klasikoko perfektzioa eta armonia lortu nahi ditu eta garai hartako artistak bezala proportzioen kanonak ezartzeko beharra sentitu zuen, gizakiaren neurriak hartuz, objektuen eta etxebizitzaren neurri estandarizatuak ezartzeko. Arau hauek *modulor* izeneko lan teorikoan bildu zituen.

Bere arkitekturaren honako bost printzipio aplikatu zituen. Piloteak erabiltzea, hartara eraikina zorutik isolatu eta azpiko espazio librea lorategi edo kale bihur daitekeelarik; lorategi-sabaiak, izadia arkitekturaren barruan integratzeko aprobe-txatuak; leiho etzanak, izan ere,

hormak bere sustengu betekizuna galtzean, sarbide librea ematen diote argiari; planta librea, pilar sistematik eta karga hormarik ez izateari esker, etxe bakoitzak bere banaketa izateko bidea ematen duena, eta azkenik, fatxada librea, solairu bakoitzaren premien arabera diseinatua.

Bere lanen artean, Saboye etxea, Indiako Chandigarh hiria, Unité d'habitation eta Notre Dame du Haut kapera ditugu. Le Corbusier sormen ikaragarriko arkitektoa zen. Komunikatzeko gogoia zuen, beti zerbait adierazteko nahian. Ordena eta arrazionalismoa abiapuntzat zituen eta bere teoriak gaur egundaino izan dute arrakasta. ||

## Alearen egileak:



Hernani Institutuko ikasleak izan dira gaurko alearen egileak.

## IRITZIA

# Minbizia eta metastasia

MINBIZIA herrialde garatueta-ko gaixotasun hedatueneraiko bat da, bihotzeko eta burmuineko gaitzekin batera. Denboraren poderioz, gure gorputzeko zelulak zahartuz joaten dira, eta, halako batean, erreplikatzeko orduan, akatsen bategatik edo zahartu direlako, gaixotasunak agertzen dira. Minbizia norberaren zelulak gaiztotzea baino ez da. Gure gorputza osatzen duten bilioika zelulen artetik batek kontrolari muzin egin eta etengabeko hazkuntzarako bidea hartzen du. Kontrolik gabeko hazkuntza horren ondorioz, tumore primarioa sortzen da. Oro har, tumore primarioa garaiz aurkituz gero, ez da arriskurik egoten kirurgia bidez kentzeko. Arazoa metastasia da.

Prozesu honetan, zelula bat gaiztotu egiten denean, kontrolik gabe hazten da; horren ondorioz, tumore primario bat sortzen delarik. Une batean, tumorea osatzen duten zelulak hainbeste hazten dira, non euren jatorrizko organoa utzi eta zirkulaziora pasatzeko gai izaten diren. Horrela, odolera

pasatu, eta gorputzeko edozein ataletara heltzeko aukera dute. Diotenez, tumore primario batetik zirkulaziora pasatzen diren zelulen % 1a bakarrik da gai metastasia sortzeko. Azken batean, presio selektibo oso handia jasaten dute zelula horiek, eta kondizio okerrenetan bizitzeko ahalmena duenak bakarrik egin dezake aurrera.

Garbi dago sortzen diren oztopoak gaitzeta lortzen duen zelula batek izugarriko gaitasuna duela edozein arazori aurre egiteko. Eta, lortzen duenean, hazi egiten da, eta, hazkuntza horretan, inguruko ehunak apurtzen joaten dira, organoek beren funtzioak galtzen dituztelarik. Horrela, hasiera batean hazteko kontrola gaitzeta duen zelula bakar hori gorputzeko beste edozein organo suntsitzera hel liteke.

Bukatzeko esan beharra dugu tratamendu asko dagoela, eta aurre egitea kosta egiten den arren, lortzen dela.

Animo eta besarkada bat momentu honetan horrela aurkitzen den jendeari!!! ||